

*Txerrikume pirata*  
Cornelia Funke  
Irudiak: Kerstin Meyer  
Itzulpena: Anton Garikano  
“Kuku” bilduma  
Elkar, 2007

### **Pirata urre-goseak txerrikumea amets**

Cornelia Funke alemaniar idazlea ezaguna da irakurle txiki eta gazteen artean, berriki gaztelaniaz argitaratutako *Corazón de tinta* eta *Sangre de tinta* liburuengatik, eta baita duela hiru urte euskaraz plazaraturiko *Lapurren burua* delakoagatik ere.

*Txerrikume pirata* haurrentzako lana da Funkek idatzita euskaraz iritsi zaigun azken testua. Urruneko uharte batean kokatutako istorio horretan Sven Pottolo eta Pit haren laguntzailea bizi dira, lasai asko, haien txalupaz uharte arteko garraio txikiak eginez. Hondartzan zehar ematen zituzten paseoetako batean, upel bitxi bat topatu zuten eta, barruan, eduki are bitxiagoa: txerrikume bat. Berehala aberearen ardura hartu zuten, eta Jule izena jarri zioten. Halako batean, ordea, txerrikumearen dohain miresgarriaren berri izan zuten: zer eta itsasoan hondoratutako altxorrek antzemateko gauza zen! Svenek eta Pittek ez zioten kontuari garrantzi berezirik eman: urrezko txanponak Jule elikatzeko erabili zituzten, eta gainontzeko bitxiak uharteko umeen artean banatu zituzten “Pirata eta printzesetan” jolas zitezen. Jokabide eskuzabal harekin, ordea, pirata maltzur talde baten jakin-mina piztu zuten, eta ipuinaren korapiloa eragin: Arraingorri gaiztoa buru zuten piratek Jule lapurtu zuten, noski, eta han hasi ziren gure bikotearen komeriak.

Testua erraz irakurtzen da, eta ekintzak bata bestearekin kateatuta daude, umore zipriztinez behar bezala onduta; gainera, lerroarteko mezu hezgarria darama: horra altxorrek sarean bezala irakurlerik nagiena ere harrapatzeko hutsezinezko formula. Anton Garikanok itzulpen-lan ona egin du, itsas giroko pertsona eta toki izen korapilatsu barregarriak eta elkarrizketa biziak aldatzen.

Azkenik, Kerstin Meyer-en komiki itxurako eta lerro garbiko marrazkiak ederki laguntzen diote testuri zein irakurleen irudimenari.

Manu Lopez Gaseni